

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Ekintza

Fantasia errealtate bifurtua

Garapena

“Garapen iraunkorra lortzeko, konponbide sortzaileak behar ditugu”, esan zuen Ban Ki-moonek, Nazio Batuetako idazkari nagusiak, NBEk 2012ko otsailaren 20an egindako Batzar Nagusian, Nairobín. Hau da, iraganeko errezetek ez dutela balio egungo krisialditik irteteko. Ala bai?

Badirudi ezetz. Aditu askoren arabera, egungo krisialdi ekonomikotik, sozialetik eta ekologikotik irteteko ezinbestekoa da iraganarekin hautsi eta gizarte-eredu arduratsua baten alde lan egitea. Baina, nola egin daiteke hori? Erantzuna Ban Ki-moonek eman digu, lehen paragrafoan. Irtenbide sortzaileak behar ditugu.

Baina, zer da sortzaile izatea? Sormenak eta berritzeko gaitasunak gizakiaren dimentsio guztiak hartzen ditu barne (kognitiboa, emozionala, prozedurazkoa, gorputzekoa, transzendentala, etikoa, arrazionala, soziala, kulturala...). Zerbaitek, sortzailea izango bada, originala, ezezaguna, ezberdina, ezohikoa izan behar du, baita erabilgarria eta egokia ere; gainera, onuragarria izan edo arazoei irtenbidea emateko balio behar du.

Zergatik ez hasi ikastetxean? Ziur aski, hainbat eta hainbat fantasia eta amets dituzu buruan. Ikastetxearen arazoren bati irtenbidea emateko balio lezakete?

Ler egin dezakegu ...

- ... Ikastetxeko ingurumen-arazoak konpontzeko?
- ... Sortutako hondakin kopurua txikitzeko?
- ... Energia-kontsumoa murrizteko?
- ... Ikasleen partaidetza sustatzeko?
- ... Ur-kontsumoa jaisteko?

Baliabideak

Lan egiteko: ikasgela, aulkiak taldearentzat, arbela, koadernoak, grabagailua (hautazkoa), erlojua.

Parte-hartzaileak

Pertsona bat dinamizatzeko eta oharrak idazteko eta gainerako taldekideak.

Helburuak

- Ikaslearen sormena eta berrikuntzarako gaitasuna lantzea.
- Elkarlana sustatzea.
- Ikastetxearen arazoei konponbideak aurkitzeko formulak proposatzea.

Landutako gaitasunak

- Ikasten ikastea.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Hizkuntza-komunikazioa
- Jendetasuna eta herritartasuna.
- Kultura soziala eta artistikoa.

Metodologia: Brainstorminga (ideia-jasa).

PROZESUAREN FASEAK

1. Berotzeko fasea

Entrenamendua taldeka egingo dute, prozesuak hobeto funtzionatzeko. Adibidez: ikastetxearen inguruan aurki ditzakegun animalia guztiak aipatuko ditugu.

2. Ideiak sortzeko fasea

- Zenbat ideia lortu nahi ditugun zehaztu.
- Zenbat denbora dugun zehaztu.
- Fase horretarako oinarrizko lau arau:
 - Kritika guztiak debekatuta daude.
 - Idea guztiak ongi etorriak dira.
 - Ahalik eta ideia gehien lortu behar dira.

- Ideiak lotu eta garatzea komeni da.

Horrela, une horretatik aurrera, parte-hartzaileek burura datorkien edozein ideia esan dezakete proposatutako arazoari buruz, arau horiek errespetatuz eta inolako lotsarik gabe. Izendatutako pertsonak arbelean idatziko ditu ideia guztiak.

3. Ideien inguruan lan egiteko fasea

Ideiak gehitu edo hobetu ahal dira eta, horretarako, galdera jakin

batzuk erabil daitezke: Beste era batera egin daiteke? Zerbait aldatuz? Handituz? Kodetuz? Berrantolatuz? Konbinatuz?

4. Ebaluazio-fasea

Idea-jasaren ostean, taldeak ideiak ebaluatuko ditu, irizpide hauen arabera:

- Idea abian jartzeko aukerak.
- Zailtasuna.
- Idea onuragarria da.

